

ERABAKIA, 2017ko azaroaren 22koa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, 2017ko ekainaren 2ko gerentearen erabaki bidez deitutako "Jarduera Espezifikoetako teknikari laguntzailea Mantentze Lanak eta Produkziarako Zerbitzuak (IV. Taldea)" izeneko lan-poltsa handitzeko hautaketa-prozesuan onartuak eta baztertuak izan diren hautagaien behin betiko zerrenda onartzeko.

Gerentearen 2017ko ekainaren 2ko erabakiaren bidez " Jarduera Espezifikoetako teknikari laguntzailea Mantentze Lanak eta Produkziarako Zerbitzuak (IV. Taldea)" izeneko lan-poltsa handitzeko hautaketa-prozesua deitu zen eta erabaki horren eranskinean deialdi hori arautuko duten oinarriak jaso ziren.

2017ko urriaren 2an onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda argitaratu zen. Zerrenda horri erreklamazioak egiteko epea bukatu ondoren, erreklamazioak aztertu eta onartutako erreklamazioek eragindako aldaketak egin dira.

Arestian adierazitakoagatik eta errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko erabakiaren bidez (2017ko otsailaren 3ko EHAA) pertsonalaren alorrean eskuordetu zaizkidan ahalmenez baliatuz,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Jarduera Espezifikoetako teknikari laguntzailea Mantentze Lanak eta Produkziarako Zerbitzuak (IV. Taldea)"lan-poltsa handitzeko hautaketa-prozesuan parte hartzeko onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko erantsitako zerrenda onartzea.

Lehiakideak hautaketa-prozesuetan behin betiko onartzeak lehiakideek prozesu horietan eskatzen diren baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituztela ulertzea dakar, lehiakideek aurkeztutako eskaeretan egiazkotzat aitortu dituzten eta eman dituzten datuen arabera. Edonola ere, lehiakideen behin betiko onarpena 9.2 oinarrian adierazitakoari kalterik egiteke ulertuko da.

Bigarrena.- Erabaki hau UPV/EHUK horretarako prestatutako web orrian argitaratzeko agindua ematea.

Hirugarrena.- Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, baina aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahalko zaio Gerentzia honi, hilabeteko epean, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko administrazio-auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean. Bi epeak erabakia Deialdian jartzen dituen tokietan argitaratu eta biharamunetik hasiko dira kontaktzen.

Leioan, 2017ko azaroaren 22an

UPV/EHUKO GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteché

